

ALTZA PORRU!

2012ko martxoa / 44. zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ • TEL.: 943 83 28 28
www.trikitixa.net / www.trikimailua.com



Euskal Herriko
Trikitixa Elkarte
L.G.: SS-418-01

San Josetako trikiti jaialdia ate joka

Udaberria gerturatzearekin batera iristen da trikiti zaleek urtero Azpeitian duten hitzordua: San Josetako jaialdia. Betiko izaerari eutsita baina, toki aldaketarekin dator aurtengo edizioa; urteetan jaialdia hartu duen Izarraitz pilotalekua atzean utzi eta Soreasu Antzoki berriak hartuko ditu aurten trikiti doinuak.

Berastegi, Izer eta Zabaleri omenaldia

Azken bi urteetan omenaldirik izan ez den arren, aurreko edizioen ohitura berreskuratu eta Urola bailarako hiru pandero jole omentzeko parada izango da aurten San Josetako jaialdian.

Juan Ezenarro Salegi Berastegi: Hamar urte zituela aitarekin hasi zen erromeriara joaten. *Sahatseta* soinu jolea auzokide zuten eta haren gurasoen zilarrezko ezteietan jo zuen aurrenekoz panderoa, *Madarixa Txikiarekin*, 12 urte zituela. Bateria aldiz, soldaduskan probatu zuen lehendabizikoz, baita ondoren Loiolako festetan Egan taldearen atsedendietan ere. 43 urte zituela eskuratu zuen lehen bateria. Panderoarekin zein baterian, hamaika soinu joleri lagundutakoa da Berastegi.

Manuel Arrizabalaga Aspiazu Izer: Jaiotetxean, Izerren, igandero egiten zen erromeria eta aita izaten zen bertan soinu jotzen. Osabek sarri laguntzen zioten panderoarekin, baita *Zabalek* ere, eta etxeko pandero zaharrak hartuta hasi zen Manuel jotzen. 17 urte zituela jo zuen lehenengoz erromeria Urrategin, Eugenio Zabaletarekin. Adin berarekin probatu zuen aitaren soinua ere. Hil berria den *Epelde* lagun zuela, hainbat omenaldi eta jaialditan jo zuten elkarrekin. Txapelketatan eta pandero irakasle lanetan ere aritua da Izer.

Luis Alberdi Zubizarreta Zabale: 15 urteren bueltan hasi zen panderoa jotzen ikasten auzokide zuen *Landakandarekin*. Honek txistu eginez laguntzen zion Luisek panderoa jotzen zuen bitartean. Izerreko erromerian ere jarduten



zuen, osaba baitzuen bertan soinu jole aritzen zen Joxe Kruz Arrizabalaga. Aurreneko erromeriak *Maltzetarekin* egin zituen Zurruntzulan eta baita Eugenio Zabaletarekin ere Urrategin. *Zendoiarekin* eta *Lajarekin* txapelketatan ibilia, duela hamar urte utzi zion pandero irakasle izateari.

Partaideak

Trikitilari sorta ederra arituko da San Josetako Trikiti Jaialdian. Urola bailarakoak bertakoak dira gehienak eta omen- duen senitartekoak ere izango dira oholtza gainean.

- Laja eta Landakanda
- Zabale anaiak
- Izer eta Alabier
- Epelde eta Iturbide
- Elorza anaiak
- Lutxurdio eta Aitziber Otegi
- Astiasaran II. eta Izer
- Lajall. eta Narbaiza

NON: Azpeitiko SOREASU Antzokian

EGUNA: Martxoak, 17 larunbata, arratsaldeko 17:30tan

SARRERA: 12 euro

Aurtengo egitasmoak zehaztu ditu Elkarteak batzar nagusian



Aiako Kultur Etxean bildu zen Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen batzar nagusia otsailaren 25ean. Bertan, iazko jardueren balantzea egitearekin batera, aurtengo egitasmoen berri eman zuten Elkarteak.

2011an gauzatutako ekintzen eta oihartzunaren balorazio positiboa egin zuen Elkarteak; besteak beste, krisi garaian egonda ere, iaz diru laguntzei eustea lortu zuelako. Aurten, bestelakoak izango dira diru kontuak: 21.000 euro inguru gutxiago jasoko ditu Elkarteak erakunde publikoen eskutik; %25 gutxiago. Krisia krisi, azken urteetako egitasmo sortari eutsiko zaio aurten ere.

- **San Josetako jaialdia:** martxoaren 17an ospatuko da Azpeitian. Lehendabiziko orrialdean dituzue xehetasunak.
- **Trikitixa Eguna:** Iaz Durango-lurretan izandako arrakastaren ondotik, aurten ere Euskal Herriko Trikitixa Eguna antolatuko du Elkarteak. Bergaran ospatuko da, urriaren 27an, larunbatarekin.
- **Faborez VI:** Pieza zaharrak jasotzen dituen bildumaren seigarren alea kaleratuko da aurten, baina bikote betaronek hartuko dute gazteen tokia. Honokoak izango dira partaideak: Mentxu eta Gema, Astiasaran anaiak, Saha-tseta eta Berastegi, eta Uitte.
- **Geure Kolkotik 2012:** Pieza berrien sorkuntza bultzatzeko proiektuaren hirugarren alea plazaratuko da aurten. Agus Barandiaran, Oskar Estanga, Xabi Arakama eta Ruben Isasiren parte hartzea baieztatuta dago. Bosgarren soinu jolea, zehazteke.
- **Diskoen aurkezpen erromeria:** Aurreko urteen gisan, Elkarteak kaleratutako diskoetako baten aurkezpen erromeria egingo da, non eta noiz erabakitzeko dagoen arren.
- **Inpernuko poza X. jardunaldia:** Azken urteetan bezala, iraila hasieran izango dira jardunaldiok, Donostiako Euskal Jaiei egitarauaren barnean. Jorratu beharreko gaia aurrerago zehaztuko den arren, hitzaldia edo mahai ingurua eta saio praktikoa izango dira.
- **Maltzetaren disko-liburua:** Juan Garate *Maltzeta* zena-ren biografia gehituko zaio aurten Soinuaren Liburutegia bildumari; bederatzigarren alea, hain zuzen. Juan Luis Zabalak idatziko du liburua.



- **XI. Nazioarteko Trikitixa Jaialdia:** Hamar urte joan dira Kursaal Jauregian aurreneko Nazioarteko Jaialdia antolatzen zenetik. Hamar urteren ondoren, jaialdiaren izaera aldatzeko aukera pentsatzen ari da Elkarteak. Erabakitzeko dago beraz, zer egin jaialdi honekin.
- **Webgune berria eta kudeaketa:** Elkartearen irudi korporatiboa den www.trikitixa.net orrialdea erabat berrituko da aurten. Honez gain, soinuaren entziklopedia izan nahi lukeen www.trikimailua.com osatzen jarraituko du Elkarteak.
- **Dokumentazioa:** Argazkiak, prentsa, audioak... trikitixarekin lotura duen oro bildu eta katalogatzeko lanari eutsiko zaio, dokumentazio zentro ahalik eta aberatsena osatzeko.
- **Partiturak sarean:** Zenbait piezaren moldaketak egingo ditu Joseba Tapiak bi ahotsetara eta sarean jarriko dira: www.trikimailua.com orrialdean.
- **Oinarri musikalak:** Trikitixa ikasleek, taldean jotzen ariko balira bezala, soinuarekin *playback* modukoa egin ahal izateko audioak dira. Hauek ere *trikimailuan* izango dira eskura eta Iban Gurrutxagak egingo ditu oinarri musikalok.
- **Altzaporru:** Elkartearen eta bazkideen arteko zubi lana egingo duen buletin honen lau ale jasoko dituzue aurten.
- **Durangoko Azoka:** Urteko azken jarduera izaten da Durangoko Liburu eta Disko Azoka. Euskal kultur sorkuntzaren erreferentzia den aldetik, Elkarteak ez du hutsik egingo eta bere postua jarriko du.
- **Zerbitzuak:** Trikitixa munduarekin, erakundeekin eta kultur eragileekin eguneroko hartu emanari eutsiko zaio.

ZUZENDARITZA BERRIKUSPENA

Aldaketa txiki batzuen ondoren, hauxe izango da Elkartearen aurtengo organigrama.

Lehendakaria: Agurtzane Elustondo

Lehendakari-ordea: Iosu Arrizabalaga Izer

Idazkariak: Aitziber Otegi eta Eneritz Gorrotxategi

Diruzaina: Juanjo Manterola

Bokalak: Iker Goenaga, Oihane Egurtza, Gema Sistiaga eta Maider Jauregi

Ganbara taldearen itzulera Xabi Aburruzaga taldekide dutela



80ko hamarkadako folk talde entzutetsuenetakoa izan zena, 15 urteren ondoren, bueltan dugu disko berri eta guzti. Ganbararen lan berriari *Egunito batez* jarri diote izena. Diskoa ez da nobedade bakarra; izan ere, taldeko sorkizaleekin batera, Xabi Aburruzaga trikitilaria Ganbaran jotzen hasi da. Portugaleteko soinu jolearekin hitz egin dugu bueltan den taldearen inguruan, eta berarentzat erronka berria den honen nondik norakoak azaltzeko.

Ganbarakoek egindako proposamena sorpresa handia izan zela aitortu dio Aburruzagak Altzaporruri. “Dei bat jaso nuen. *Denboraren Naufrago* diskoa entzuna zutela esan zidaten, nire musika oso gustuko zutela, eta animatuko ote nintzatekeen... eta baiezkoa eman nuen. Poz handia izan zen niretzat”.

Poza eta sorpresa. Izan ere, Ganbarak sona handia izan zuen garaian, Aburruzaga mutil koxkorra zen, eta “txikitatik folk asko kontsumitu” duela azaldu arren, “urteekin deskubritutako taldea” izan da Ganbara berarentzat. “Ziur nago, inoiz entzun izango nuela *Muxarraren testamentua*, baina gatzetxotan beharrean, ondoren deskubritutako taldea izan da”.

Dozena bat kantu topatuko ditu disko berria hartzen duenak. Horietatik hamar, taldearen lehengo kantuen moldaketak dira (*Bilutsik azkenean, In illo tempore, Azken muxarraren testamentua...*) eta gainerako biak, pieza berriak dira. Kantuak moldatzeko garaian, Aburruzagak hauspo berria eman diela esan liteke. “Moldatzeko garaian ezinbestekoa da “kanpoko” musikari baten iritzia. Eta hori izan da nire lana. 4 kantu moldatu ditut, eta besteetan ere nire iritzia eman dut. Zalantza barik esan liteke freskotasunaren bila joan garela. Askotan lan zaila izan da, kontuan hartu behar baita 80ko hamarkadan idatzita dardela, baina oso lan interesgarria izan da”.

Diskoan jasotzen diren bi pieza berrien artean, *Irumugarrieta* izeneko fandangoa sortu du trikitilari bizkaitarrak. “Grabatzeko aste gutxi falta zirela amaitu nuen pieza. Mendi hori asko maite zuen lagun bati eskainia da, Luis Ansotegiren omenez idatzitakoa. Entseguan landu eta diskoan sartzea erabaki genuen”. Beste pieza *Pelemos* da. Kepa Gonzalezen *Tener trece años en el 36* filmerako sortutako doinua da; Errepublikanoen bandoan gerrara zihoazentzat egina eta gatzeleraz kantatua.

Ganbararen itzulerak ezustean hartuko zituen hamaika jarraitzaile. Taldea berriz ere martxan da, eta disko berria eskutan, zuzenekoen txanda da orain. Emanaldien kontua zail dagoela dio Aburruzagak. “Gauzak zail dauden arren, asmoa badago diskoa behar den bezala aurkezteko. Bai Euskal Herrian, baita atzerrian ere”.

Epelde eta Trabaku soinu joleak hil dira

Joxe Mari Soraluze Balentziaga *Epelde* 1914an jaio zen Azkoitiko Martirieta bailarako Muno baserrian. Familiatik zetorkion musikarekiko zaletasuna; aita eta aitona dultzaineroak izan ziren, baina berak soinu txikia aukeratu zuen. Epeldek anaia eta *Egurrola* izan zituen panderoan lagun besteak beste. Hamaika erromeria alaitutako trikitilaria izateaz gain, Euskal Herriko Trikitixa Txapelketan parte hartu izan zuen.

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak 2004an argitaratu zuen Xabier Gantzarainen idatzitako “Epelde, mende baten soinua” biografia liburua. (Idazleak heriotzaren berri jakindakoa idatzitako artikulua duzue atzealdean).

Juan Zelaieta Aranburu *Trabaku* 1923an jaio zen Trabakun. Honek ere familiatik jaso zuen soinurekiko zaletasuna; aita-rengandik eta soinua jotzen zuen osaba batengandik. Eskolan zertxobait ikasi bazuen ere, Eibarrera bizitzera joandakoa ikasi zuen soinu kromatikoa jotzen eta baita solfeoa ere.

Oso gatzetxotan, 16 urterekin ekin zion erromeriatan jotzeari eta urte luzez ibili zen, erromeria nahiz ezkontzatan, soinu jotzen. Manuel Arruabarrena izan du alboan pandero lagun, *Gelaxoren* semea batera jotzen eta *Mago de Urki* soinu jolearekin ere aritzen zen tarteka.



“Erramunen soinua” ipuina kaleratu du Bizkaiko trikitixa elkarteak

Nekatuta, aspertuta, haserre zegoen Erramun idia. Egun batean, baina, herri txiki batetik pasatu zen Erroman idiarekin batera, eta herriko plazatik zetorren musika laino bat entzun zuen. Zer zen baina? Bi musikari, zabaldu eta itxi egiten zen kutxa moduko batetik ateratzen ziren doinuak, gauza biribil bati emandako kolpeekin egindako erritmoak... Horrelaxe hasten da “Erramunen soinua”; Bizkaiko Trikitixa Elkarteak umeei zuzenduta sortu duen ipuina.

Liburu eta diskoaz osatutako lana da. Unai Elorriagak idatzitako istorioan, Erramun izeneko idiak eta bere lagunak trikitixaren nondik norakoak ikasiko dituzte: nondik datorren, nola jotzen den edota zein erritmo erabiltzen diren. Istorio horretan pertsonaiek abesten dituzten kantuak diskoan entzuteko aukera ematen du lan honek, eta pieza horiek soinuarekin jotzeko partiturak ere biltzen ditu liburuak.

Xabi Aburruzaga eta Jose Urrejola aritu dira musika sortu eta traskribitzen. Eta ipuina ederki dotoretzen duten irudiak Eider Eibarrek eginak dira.

GALBAHEA

Epelderren heriotzaren harira argitaratutakoak bildu ditugu. Haren biografia idatzi zuen Xabier Gantzarainek Berrian idatzitako artikulua duzue aurrenekoa; “Zerubiden” izenekoak. Izerrek eta Landakandak Epelde zenaz Azkoitiko Hitzari esandakoak, ondoren.

Iraganean gertatzen da dena, irakurri nuen nonbaiten, eta baietz egin nuen buruaz, halaxe da, ez dago orainik, joan da, iraganean gertatzen da dena. Txillardegirik nekusan argazkian, zeinek ekarriko zuen hona, zer pentsatu ote zuen hainbeste urteren ostean bere lehen nobela idatzi zuen lekua berriz ikusita, zerekin akordatu ote zen, halaxe da, iraganean gertatzen da dena, bakarrik nago Patagonian, bazkalordua da, eguraldi muzina dago benetan, taberna honetara etortzen naiz aspaldian, txineraz aritzen dira zerbitzariak euren artean, euskaraz egiten du nire bihotzak taupa. Gaur igandea da, iragana, egunkari ezkutu baterako ari naiz idazten, mundu guztiaren aurrean.

Mezua jaso dut sakelakoan: Epelde hil da. Zergatik irakurri behar nuen gaur esaldi hori, dorre okerra osatzen dute terrazako aulkiek espaloi ertzean, autoak ziztuan doaz, iraganean gertatzen da dena. Gerrara eramanez zuten frankistek, Bruneten ibili zen, baimenarekin etxera etorritako batean anaiari eman zion agindua, botatzeko ur irakina hanka gainera; lehenengoan kale; artilezko galtzerdiak jantzita hurrena, hala ere erre ez. Berriz ere gerrara. Iraganean gertatzen da dena.

Bakarrik nago Patagonian, ez dago urmaelik parkean.

(Berria, 2012-01-17)

Manuel Arrizabalaga Izer: Lehiaketatan ibili nintzen berarekin. Ez zeukan bikoterik, eta neuk bultzatu nuen parte hartzera. Hasieran ez zegoen seguru, baina gero berari gustatu zitzaion gehiena... Ederra jarri zen ba! Gizon bezala ona zen. Baserriko lanagatik ezin izan zuen trikitia gehiegi landu, baina koadri-lan askotan ateratzen zuen trikitia.

Ramon Zubizarreta Landakanda: Pertsona jatorra eta atsegina zen, gozoa. Lehengo garaietako soinu-jotzailea zen, ona; neurri onena jotzen zuen eta Euskal Herriko Trikiti Txapelketara ere aurkeztu izan zen. Nik ez nuen inoiz berarekin jo. Bere seme Tomasekin, berriz, askotan ibili naiz.

Muno baserrian jaio zen, eta hasieran *Muno* izenez ezagutzen zen. Gero Epelde baserrira ezkondu zen, eta handik aurrera *Epelde* izenarekin aritu zen. Ez zen asko irteten Martirieta auzotik, ordea. Baserriak horixe izaten du: han lana egin behar izaten da. Beraz, ez zen kanpora asko atera.

(Azkoitiko hitza, 2012-01-17)

ZESUMA

GOZATEGIEN MUSIKA “HIL ARTE BIZI” ANTZERKI OBRAN

Urtarrilean estreinatu dute “Hil arte bizi” antzezlanak Iker Galartza, Sara Cozar eta Joseba Usabiaga aktoreek. Adiskidetasunaren mugen inguruko hausnarketa da obra: heriotzaz ari den komedia eta adiskidetasuna lantzen duen tragedia. Iker Galartzak Javier Veigaren “Amigos hasta la muerte” lana euskaratu du eta moldaketa horretan, musikak ere izan du aldaketarik. Amaierako tangoaren tokian, Gozategi taldearen “Udako egunak” izeneko balsa da antzezanari bukaera eder eta hunkigarria ematen diona. *Ay amor, donde estás, en mis sueños sin ti viviré...*

KEPA JUNKERAK ETA EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAK ELKARREKIN BOST KONTZERTU ESKAINIKO DITUZTE

Euskadiko Orkestraren KasikAT ekimenaren barruan dator kontzertu-sorta berri hau. Kepa Junkera trikitilari bilbotarraren piezen bertsio sinfonikoak landuko dituzte Enrike Ugarteren zuzendaritzapean. Ugartek lehen ere eginak ditu Euskadiko Orkestrarekin gisa honetako proiektuak: Mike Oldfielden “Music of the Spheres” diskoaren aurkezpena edota Benito Lertxundirekin grabatutako “Auhena Sinfonikoa” diskoa. Errepertorio klasikotik urrun, publiko anitzago batengana iristeko ahalegina da KlasikAT ekimena. Kepa Junkeraren piezen moldaketa sinfonikoak hartuko du, beraz, udaberri honetako eskaintza. Hona hemen, emanaldi berezien agenda: martxoaren 21ean Iruñeko Baluartan. 22an Donostiako Victoria Eugenia Antzokian. 23 eta 24an Bilboko Arriaga Antzokian. Azkena, martxoaren 28an Gasteizko Principal Antzokian.